

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. 2018KO APIRILA

Euskal AEko hotel-establezimenduetan 2018ko apirilean izan den bidaiarien sarrerak % 1,0 egin du behera

Hotelen eguneko batez besteko tarifa 82,5 euro izan da 2018ko apirilean, aurreko urtean baino % 2,2 handiagoa

Euskal Autonomia Erkidegoko hotel-establezimenduetan 2018ko apirilean 255.590 bidaiari sartu dira, aurreko urteko hilabete berean baino 2.698 gutxiago; horrek esan nahi du, Eustatek emandako datuen arabera, % 1,0eko beherakada egon dela. Bidaiarien sarrerak behera egin du Araban, % 2,8, Gipuzkoan % 1,2 eta Bizkaian % 0,4. **Kontuan izan behar da, datu horiek interpretatzeko orduan, 2017ko Aste Santua apirilean izan zela eta, aurten, Pazko-domeka eta Pazko-bigarrena salbu, martxoan izan dela.**

Bestalde, EAEko hotel-establezimenduetan 2018ko apirilean 487.418 ostatu-gau erregistratu dira; alegia, % 0,1eko igoera egon da aurreko urteko apirileko datuen aldean, 532 ostatu-gau gehiago. Ostatu-gauak urte arteko bilakaera positiboa izan dute Bizkaian (% 2,5eko igoera), baina Araban % 2,2 egin dute behera eta Gipuzkoan % 1,8.

1. taula.- Euskal AEko hotel-establezimenduetako gualdiak, bidaiarien sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. 2018ko Apirila

	Gualdiak		Bidaiarien sarrerak		Batez besteko egonaldia		Betetze-maila (%)				Gelatik Errentagarritasuna	
	2018/04	m/m-12 (%)	2018/04	m/m-12 (%)	2018/04	2017/04	plazaka		gelaka		ADR (eurotan)	RevPar (eurotan)
							2018/04	p.p.*	2018/04	p.p.*		
EUSKAL AE	487.418	0,1	255.590	-1,0	1,91	1,89	54,9	-1,0	66,2	0,8	82,5	54,6
Estatukoak	281.095	-8,2	149.806	-7,6	1,88	1,89	-	-	-	-	-	-
Atzeritarrak	206.323	14,2	105.784	10,0	1,95	1,88	-	-	-	-	-	-
ARABA/ÁLAVA	63.722	-2,2	35.629	-2,8	1,79	1,78	49,4	-0,9	59,8	1,0	69,2	41,4
Estatukoak	46.143	-5,1	25.665	-5,2	1,80	1,80	-	-	-	-	-	-
Atzeritarrak	17.579	6,5	9.964	3,9	1,76	1,72	-	-	-	-	-	-
Vitoria-Gasteiz	47.625	1,9	25.755	0,7	1,85	1,83	52,7	0,6	65,1	2,5	56,1	36,5
BIZKAIA	229.521	2,5	118.199	-0,4	1,94	1,89	55,3	0,8	68,9	2,6	78,9	54,3
Estatukoak	129.238	-6,9	68.405	-7,5	1,89	1,88	-	-	-	-	-	-
Atzeritarrak	100.283	17,6	49.794	11,5	2,01	1,91	-	-	-	-	-	-
Bilbao	148.660	3,3	75.293	1,5	1,97	1,94	62,3	1,3	76,8	3,4	86,7	66,7
GIPUZKOA	194.175	-1,8	101.762	-1,2	1,91	1,92	56,4	-3,4	65,4	-1,4	91,4	59,8
Estatukoak	105.714	-11,0	55.736	-8,7	1,90	1,95	-	-	-	-	-	-
Atzeritarrak	88.461	12,0	46.026	9,7	1,92	1,88	-	-	-	-	-	-
Donostia / San Sebastián	116.450	-2,3	60.941	-0,5	1,91	1,95	64,2	-4,8	73,5	-3,4	114,7	84,4

p.p.* = aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistikoko hartzaileen inkesta


Estatutik etorri den bidaiarien kopuruak % 7,6 egin du behera Euskal Autonomia Erkidegoan, aurreko urteko apirilaren aldean, eta atzeritik etorri diren bidaiarien kopuruak % 10,0 egin du gora. Arabaren kasuan, Estatuko bidaien sarrerak bilakaera negatiboa izan dute (% 5,2 behera) eta % 3,9ko igoera atzerriko bidaiarien kasuan. Bizkaian, Estatuko bidaiarien sarrerak % 7,5 egin du behera, eta atzerriko bidaiarienak, % 11,5 gora. Gipuzkoan ere beherakada egon da Estatuko bidaiarien sarrera-kopuruan (% 8,7), eta igoera atzerrikoenean (% 9,7).

Batez besteko egonaldia 1,91 egunekoa izan da azken apirilean, 2017ko apirilaren gainetik, orduan 1,89 egunekoa izan baitzen. Araban igo egin da, iaz 1,78 egunekoa izan zen eta, aurtengo

apirilean, 1,79 egunekoa; Bizkaian, iaz 1,89 egun izan ziren eta aurten 1,94. Baina, Gipuzkoan, batez besteko egonaldiak behera egin du; 1,92 egun ziren 2017ko apirilean eta aurtengoan, 1,91.

Plazen araberako okupazio-maila dela eta, ehuneko 1,0 puntu egin du behera EAE osorako; 2017ko apirilean % 55,9 izan zen eta aurtengo apirilean % 54,9. Araban, ehuneko 0,9ko beherakada egon da, % 50,3tik % 49,4ra aurtengo apirilean. Bizkaian, ehuneko 0,8 puntuko igoera egon da; 2017ko apirilean % 54,5 eta, aurtengo apirilean, % 55,3ko okupazio-maila. Gipuzkoan, okupazio-mailak okerrera egin du, ehuneko 3,4 puntu; iaz % 59,8 izan zen eta, aurten, % 56,4.

Euskal AEko zerbitzuen gainera kointura-indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)
Jaiegunen eraginetatik zuzendua. Uneko prezioak



Logelako okupazio-mailak ehuneko 0,8 puntuko igoera izan du EAE osorako; logelako % 66,2ko okupazio-maila izan du. Araban, ehuneko 1 puntu egin du gora, eta % 59,8koa izan da; Bizkaian, ehuneko 2,6 puntu egin du gora, eta % 68,9koa izan da; eta, Gipuzkoan, ordea, ehuneko 1,4 puntu egin du behera, eta logelako okupazioa % 65,4koa izan da.

Plazako hotel-okupazio handiena, aurtengo apirilean, Donostia-San Sebastianen izan da (% 64,2), gero Bilbon (% 62,3) eta, ondoren, Gipuzkoako kostaldean (% 54,9).

Astearen eguna kontuan izanik, asteburuetan izan da okupazio-maila altuen EAEn 2018ko apirilean, % 65,0ekoa izan da plaza okupatuaren ehunekoa, eta, gainerako egunetan, erregistratutako okupazioa % 51,1ekoa izan da.

Azkenik, eta **sektoreko errentagarritasun-adierazleak** direla eta, eguneko batez besteko tarifa EAeko hoteletan 82,5 euro izan dira 2018ko apirilean, urtebete lehenago baino % 2,2 altuagoa. Batez besteko tarifa 69,2 euro da Araban (% 1,2 egin dute behera), 78,9 euro Bizkaian (% 5,6 egin du gora) eta 91,4 euro Gipuzkoan (% 0,1 egin du behera).

Eskuragarri dagoen logelako diru-sarrerak (RevPar), hotel-establezimenduen okupazio-mailaren arabera, 54,6 eurokoak izan dira 2018ko apirilean EAEn, 2017ko apirilean baino % 3,5 handiagoak. Araban, RevPar 41,4 eurokoa izan zen, 54,3 eurokoa Bizkaian eta 59,8 eurokoa Gipuzkoan.

Landetxeetan bidaiarien sarrerek % 8,4 egin dute behera, eta ostatu-gauak 20,2 egin dute behera, 2018ko apirilean

Aurtengo apirilean 14.655 bidaiari erregistratu dira EAeko landetxeetan, aurreko urteko hil berean baino % 8,4 gutxiago. Lurraldean arabera, Araban behera egin du sarrera-kopuruak, % 26,5; Bizkaian % 16,2ko beherakada egon da eta, Gipuzkoan, % 3,3ko gorakada. Atzerriko bidaiarien 2.722 sarrerak kontuan hartuta, % 35,8ko igoera egon da, iazko bisita-kopuruaren aldean, eta sarrera guztien % 18,6 izan dira. Bestalde, Estatuko bidaiarien sarrerek % 14,8 egin dute behera.

Nekazaritza-turismoko establezimenduek eta landetxeek EAEn, guztira, 32.046 ostatu-gau erregistratu dituzte apirilean, eta % 20,2ko beherakada izan dute, aurreko urteko hil beraren aldean. Lurralde-mailan, Araban % 33,8 egin dute behera, Bizkaian % 23,8ko beherakada egon da eta, Gipuzkoan, % 12,8ko beherakada.

Plazako okupazio-maila % 24,6koa da; ehuneko 0,7 puntuko beherakada egon da 2017ko apirileko zifren aldean. Arabak ehuneko 10,3 puntuko beherakada izan du, eta okupazio-maila plazako % 19,2koa izan du. Bizkaian, okupazio-maila % 22,3koa da, eta ehuneko % 7,3 puntuko beherakada egon da, 2017ko apirilaren aldean, eta Gipuzkoak ehuneko 5,3ko puntuko beherakada izan du, eta apirilean % 28,6ko okupazio-maila izan du.

Azkenik, bidaiari bakoitzeko batez besteko egonaldiak, azken apiril honetan, behera egin du, 2017ko apirilaren aldean; iaz 2,51 eguneko zen eta, azken hil honetan, 2,19koa.

2. taula.- Euskal AEko landetxeetako gaudiak, bidaiarien sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. 2018ko Apirila

	Gaudiak		Bidaiarien sarrerak		Batez besteko egonaldia		Plazakako betetze-maila (%)	
	2018/04	m/m-12 (%)	2018/04	m/m-12 (%)	2018/04	2017/04	2018/04	p.p.*
EUSKAL AE	32.046	-20,2	14.655	-8,4	2,19	2,51	24,6	-7,0
Araba/Álava	5.374	-33,8	2.409	-26,5	2,23	2,48	19,2	-10,3
Bizkaia	8.698	-23,8	3.864	-16,2	2,25	2,47	22,3	-7,3
Gipuzkoa	17.974	-12,8	8.382	3,3	2,14	2,54	28,6	-5,3

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

2018ko Aste Santuko balantzea

Aste Santuan logelako okupazio-maila % 75,8koa izan zen EAeko hotel-establezimenduetan, aurreko urtean baino ehuneko 6,6 puntu gutxiago

Bidaia-arien sarrerek gora egin dute, eta 41,808 izan dira EAEko hotel-establezimenduetan, ostegun eta igande bitartean (4 gau) Aste Santuan 2018an, eta 2017ko Aste Santuko aldi bereko % 4,2 sarrera gutxiago. Guztira 12.467 sarreretatik, % 29,8 atzerriko bidaia-arienak izan ziren eta 29.341 Estatuko bidaia-arienak. Atzerriko bidaia-arien sarrera-kopuruak behera egin zuen % 4,0, aurreko urteko atzerriko sarreren aldean, eta Estatukoek % 4,2 egin zuten behera.

Arabak 5.564 sarrera izan zituen, aurreko urtean baino % 21,3 gutxiago. Bizkaiak 18.769 sarrera erregistratu zituen, % 5,6 gutxiago, eta Gipuzkoak, 17.475 sarrera, % 4,7 gehiago.

Aldi horretan bertan, 88.597 ostatu-gau izan dira EAE osoan, alegia, % 5,9ko beherakada egon da, 2017aren aldean. Ostatu-gauak % 17,8 egin dute behera Araban, eta 11.478 ostatu-gau izan dira; Bizkaian % 4,5 egin dute behera, eta 41.276 ostatu-gau izan dira, eta % 3,0 egin du behera Gipuzkoan (35.843 ostatu-gau izan ziren).

2018ko Aste Santuan, logelako okupazio-maila % 75,8koa izan da, ehuneko 6,6 puntu gutxiago 2017ko Aste Santuan baino. Lurraldeen arabera, biztanleko okupazio-maila % 67,6koa da Araban, % 76,0koa Bizkaian eta % 78,6koa Gipuzkoan. Horrek, 2017ko Aste Santuko okupazio-mailaren aldean, beherakada dakar, ehuneko 14 puntu Araban, ehuneko 5,9 puntu Bizkaian eta ehuneko 4,6 puntu Gipuzkoan.

Hiriburuetan, logelako okupazio-maila altuena Donostia-San Sebastianen izan zen (% 87,1eko okupazioa), aurreko Aste Santuan baino ehuneko 3,9 puntu gutxiago, eta, ondoren, Bilbon, non plazako okupazioa % 8,29koa izan baitzen, 2017an baino ehuneko 2,8 puntu gutxiago, eta gero Vitoria-Gasteizen, % 67,1eko izan baitzen, 14,5 puntu gutxiago.

Logelako okupazio-maila Aste Santuan % 68,1ekoa izan zen, EAEko nekazaritza-turismoko establezimenduetan

Aste Santuko bidaia-arien sarrerek gora egin dute, eta 3.971 izan dira, EAEko nekazaritza-turismoko establezimenduetan; % 2,3ko igoera izan dute, aurreko urteko aldi beraren aldean. Arabak 681 sarrera izan zituen, 2017ko aldi berean baino % 14,8 gutxiago, Bizkaiak 1.279 sarrera, % 3,8 gutxiago, eta Gipuzkoak 2.011, aurreko urtean baino % 14,6 gehiago.

Aldi berean, ostatu-gauak % 8,9 egin dute behera, eta 11.648 ostatu-gau izan dira EAEn; hiru lurraldeetan egon dira beherakadak, baina kopuru desberdinekoak.

EAE osoan, logelako okupazioa % 68,1ekoa izan da, Araban % 67,4koa, Bizkaian % 62,3koa eta Gipuzkoan % 72,3koa.

3. taula. Bidaieri sarrerak, gualdiak eta betetze-mailak hotel establezimenduetan eta landetxeetan Euskal AEn, jatorri eta eremu geografikoaren arabera. Aste Santua(*). 2018

	Bidaieriaren sarrerak		Gualdiak		Betetzemaila gelaka	
	2018	Δ%	2018	Δ%	2018	Δ%
HOTELAK						
EUSKAL AE	41.808	-4,2	88.597	-5,9	75,8	-6,6
Estatukoak	29.341	-4,2	63.385	-7,9	-	-
Atzeritarrak	12.467	-4,0	25.212	-0,3	-	-
ARABA/ÁLAVA	5.564	-21,3	11.478	-17,8	67,6	-14,0
Vitoria-Gasteiz	3.843	-23,9	7.959	-16,7	67,1	-14,5
BIZKAIA	18.769	-5,6	41.276	-4,5	76,0	-5,9
Bilbao	11.487	1,0	25.621	-1,5	82,9	-2,8
GIPUZKOA	17.475	4,7	35.843	-3,0	78,6	-4,6
Donostia / San Sebastián	10.066	10,1	20.650	-1,2	87,1	-3,9
LANDETXEAK						
EUSKAL AE	3.971	2,3	11.648	-8,9	68,1	-1,7
ARABA/ÁLAVA	681	-14,8	2.431	-7,0	67,4	1,3
BIZKAIA	1.279	-3,8	3.277	-16,1	62,3	-7,2
GIPUZKOA	2.011	14,6	5.940	-5,2	72,3	0,7

(*) Aste Santua: Ostegunetik igandera (4 gau)

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62